



ISASTEGI SAGARDOTEGIKO ARDURADUNA

Joseba Lasa: «Sagardo zaletasuna gorantz doa: gero eta jende gehiago dator sagardotegira»

EROSKIREN EKOIZLEAK. Isastegi sagardotegian oso gustura daude iazko sagar uztarekin. Sagardo ederra ekoitzi dute.

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**





aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**





Tolosako Aldabatziki auzoan (Gipuzkoa) dago Isastegi sagardotegia. Inguru lasai batean, naturaren erdian. Giro atseginean, lagunekin edo familiarekin otordu eder bat egiteko toki ezin hobea da. 2023ko sagar uzta oparoa izan dute, eta oso gustura daude ekoitzi duten sagardo berriarekin, sagardo bikaina baita.

Zer moduzko sagardoa egin duzue 2023ko uztan bildutako sagarrarekin?

2023koa uzta oparoa eta kalitatezkoa izan da guretzat. Urrian izan ziren tenperatura altuek esfortzu gehigarri bat eskatu zuten, bilketa azkartu behar izan baikenuen sagarraren kalitatea mantendu ahal izateko. Oso gustura gaude aurtengo emaitzarekin. Azken batean, sagar barietate bakoitzak bere nortasuna ematen dio edango dugun sagardoari, eta hortxe dago giltza: errezeta edo nahasketa horrekin asmatzean.

Gorenak sagardoa, Euskal Sagardoa sor-markako sagardoa eta sagar ozpina ekoizten dituzue. Latako sagardoa ere bai. Harrera ona izaten ari da latakoa?

Duela pare bat urte hasi ginen sagardoa latan eskaintzen, eta harrera ona izaten ari da, bereziki esportazioan. Euskal bezeroek harriiduraz hartu bazuten ere, gero eta gehiago dira formatu honetara jotzen dutenak. Erosoa da, espazio gutxiago behar du etxean, eta Isastegi sagardoaren nortasuna berdin berdin mantentzen du.

Sagardoa eskaintzeko modu berri bat da. Baduzue beste proiektu berritailerik?

Badugu, bai, guretzat oso garrantzitsua den beste proiektu bat. Duela lau urte hasi ginen itsas mailatik 650 metroko altuerara dagoen lursail batean sagastia

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena



Azpmarragarria da iaz hainbat sari irabazi zenituztela. Urrezko dominak, apirilean Cider World nazioarteko sagardo lehiaketan Frankfurten (Alemania), ekainean Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen duen Sagardo Lehiaketan eta irailean Rigan (Estonia) egin zen Nordic International Cider Awards lehiaketan. Isastegi sagardoaren kalitatearen seinale? Urte askoan egindako lanaren fruituak? Iruditzen zait azken urte hauetan sagardo estiloarekin asmatzen ari garela. Hori, dudarik gabe, urtez urteko lanaren emaitza da, eta sari horiek lan hori azaleratzen eta goraipatzen dute. Esan beharra dago gure sagardoek ez dutela ez sulfitorik eta ez beste kontserbagarri artifizialik eta horrek lan-dinamika oso zorrotzak exijitzen dituela.

Jende asko espero duzue aurtengo txotx garaian?

Pasa den urtean bezero asko izan genituen, eta aurten ere antzeko kopurua espero dugu gutxienez. Jendearengan sagardo zaletasuna gorantz doala esango nuke, eta, asteburuetako ospakizun eta jai giroaz gain, gero eta gehiago dira aste barruan sagardoak dastatzera datozenak.

Sagardotegira joaten zaizuen jendea Tolosaldekoa izaten da? Tolosaldeetik kanpokoa ere bai?

Gehienbat inguruko eskualdeetako bezeroak izaten dira, baina beste probintzietatik ere etortzen dira gurera. Gure sagardoa ezagutzen duten atzerritarrak ere iristen dira sagardoaren sorlekua ezagutzera.

Sagardoak Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere banatzen dituzue?

Bai. Gure merkatuak %85 nazionalak dira, eta %15 esportazioak.

Sagardoa sagardotegian bertan saltzen duzue, online ere bai, eta taberna eta jatetxe ugaritan eskaintzen dute. Horrez gain, saltokietan ere eskura daiteke, Eroskiren saltokietan, besteak beste. Noiztik ari zarete Eroskirekin lan egiten? Gustura elkarlan horrekin?

Bai, noski. Badira 30 urte baino gehiago Eroskirekin lanean hasi zela gure aita. Orduan, Eroski markako sagardoaren sorrera izan zen Isastegi eta Eroskiren

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



Belaunaldi berria ari gara sagardotegian: anaia Mikel eta ni gara arduradunak duela hiru urtetik. 1983an sortu zen familiako negozio txiki bat da gurea.

Bi hamarraldi. Milaka aldi.

Hogei urtez, milaka euskaldunen babesari esker, aldian aldiko kazetaritza independente eta profesionala egin ahal izan dugu. Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik



Iruzkin bat egin

ORDENATU

DATA

INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Hizkuntza gutxituetan ikasteko eskubidea aldarrikatu dute ikasleek Parisen

EKHI ERREMUNDEGI BELOKI

Athleticek lehen kolpea eman du Madrilen

DEÑAT MIHUKA TELLEDIA

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena





Eskaera desberdinak ditu sektoreak

IKER ARANBURU

NABARMENDUAK



Jolasetik jokora

MIKEL ELKOROBEREZIBAR BELOKI



Ilearen artea

MAIXA UTRERA PUELLES

ETB2n, 86 film;
ETB1en, bakarra

URTZI URKIZU



Ar
Go
«M
he
ko
inc
lar

GURI

Harpidetu Berriaren

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena



IKUSI >

IKUSI >

Astekaria

IKUSI >

Kinka

IKUSI >

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**

